AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

*ERMUA HIRIKO UDALA*

**Justificante de presentación de documentos en el Registro**

***Dokumentuak Erregistroan aurkeztu izanaren frogagiria***

**REGISTRO/*ERREGISTROA***

Identificación de Registro y funcionario(a)/*Erregistroaren eta funtzionarioren identifikazioa*

CARMEN FRONTAURA BASTERRA (CFB)
ABIAPUNTU

| Fecha/*Data* | Hora/*Ordua* | Número/*Zenbakia* | Sello/*Zigilua* |
|---|---|---|---|
| 25/01/2018 | 12:18:29 | **788/2.018** | 48034 A REGE1200LD |

| Código del asiento<br>*Idazpenaren kodea* | Páginas documento<br>*Dokumentuaren orrialde kopurua* |
|---|---|
| REGE1200LD | 1 |

**EXTRACTO/*LABURPENA***

Moción sobre situacion de agurtzane delgado|agrutzene delgado egoera buruzko mozioa

**PERSONA(S) INTERESADA(S)/*PERTSONA INTERESDUNA(K)***

SEC: ASAMBLEA DE MUJERES DE ERMUA<->APDO. CORREOS Nş 173
PRI: EH BILDU<->CALLE/KALEA MARQUES DE VALDESPINA/VALDESPINA MARKESA 1

**EXPEDIENTE(S) ASOCIADO(S)/*ELKARTUTA DITUEN ESPEDIENTEA(K)***

**UNIDAD TRAMITADORA/*IZAPIDETZEN DUEN UNITATEA***

P(N) Secretaría/Órganos de gobierno

*Honako frogagiria beronek aipatzen duen idatziari buruzko edozein informazio eskuratzeko aurkeztu beharko da.*

Este justificante deberá ser presentado para obtener cualquier información sobre el escrito al que hace referencia.

LEYENDA: [F]Funcionario/a [O]Otros [PR]Principal [REP]Representante [SEC]Secundario/a [COL]Colindante

ERMUKO
EMAKUMEEN
ASANBLADA

**Agurtzane Delgado (ERMUA) eta Ainhoa Mujika (DONOSTIA)**
**ESPETXE POLITIKA MATXISTAK BAKARTUAK**

---

Agiri hau sinatzen dugun taldeok gure elkartasuna adierazi nahi diegu Alboloteko kartzelan (Granada) zigorra betetzen ari diren Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikari; izan ere, 2017ko maiatzaren 18az geroztik, eta kartzelako zuzendaritzak hala erabakita, isolamendu-erregimenean daude, denbora "mugagaberako", egoera hori noiz arte luzatuko den jakin gabe.

9. moduluko komunak halabeharrez garbitzeari uko egin zioten bi presoek eta hor dago isolamenduaren arrazoia. Arau idatzirik ez badago ere, azkeneko bost urteetan emakume presoak, eta emakumeak soilik, derrigortzen dituzte komunak garbitzera; egoera erabat diskriminatzailea eta matxista da eta Agurtzanek eta Ainhoak salatu egin nahi izan dute.

Bat egiten dugu Granadako Alboloteko kartzelan, eta beste hainbatetan, gertatzen ari den diskriminazio matxista onartezinaren kontrako salaketarekin. Espetxe-politika matxistaren ondorioz emakumeak "emakumeei dagozkien" jarduerak egitera derrigortzen dituzte, josi edo garbitu, adibidez. Debekatuta dute gizonek soilik egiten dituzten beste lan batzuk egitea (ordaindutako lana da gainera): igeltsero-lanak, mantenimendu-lanak, arotzeria, pintura, elektrizitatea edo ekonomatoa. Lan horiek inolako arazorik gabe bete ditzakete emakume presoek.

Guzti horren kontra agertzeagatik, emakumeak izate hutsagatik, Agurtzane eta Ainhoa euskal presoei zigor bikoitza inposatu diete. Ideologia patriarkal eta matxistaren biktimak dira, eta euren bizi-baldintzei larriki eragiten dieten neurriekin zigortu dituzte.

Hirugarren munduko estatuetako kartzeletako egoera dirudien arren, hauek dira azkeneko 7 hilabeteetan Agurtzanek eta Ainhoak bizi dituzten baldintza errealak:

- lur azpiko zeldetan daude, leiho txiki bakarrarekin; goizetan argi apur bat sartzen zaie,
- ez dute berogailurik, haize hotza sartzen uzten duen gailu bat besterik ez. Gehienez ere 11 gradu izaten dituzte zeldan, kontuan hartuta, negua han oso gogorra dela,
- gau eta egun eskura duten arropa guztia jantzi behar dute, hori ere mugatua,
- zelda oso txikia da; berotzeko 6 pauso besterik ezin dituzte eman, diagonalean ibiliz,
- lehen egiten zituzten hezkuntza- edo prestakuntza-jarduerarik ezin dute egin orain, ez eta gainerako emakume presoekin harremanik izan ere,
- bi ordu besterik ezin dira irten (goizez eta arratsaldez) patio txiki batera, 15x5 metrokoa, gutxi gorabehera, eta ezin dute beste inora irten,
- euren arropak garbitzeko tresna nahikorik ez dute eta fregonaren kuboan garbitu behar izaten dute,
- giza eskubideen babesa ukatzen zaie bizitzako arlo eta egoera guztietan; askatasun-ezaren zigorrak ez du inondik inora tratu diskriminatzaile eta iraingarririk, eta mendeku eta zigor matxistarik justifikatzen.

ERMUKO
EMAKUMEEN
ASANBLADA

Agurtzanek eta Ainhoak Granadako Alboloteko kartzelan bizi duten egoerak, kartzelak zuzentzen dituztenen etika-eza kezkagarria erakusten du, horrelako eraso larriak eta preso dauden emakumeen oinarrizko giza eskubideen mespretxua ahalbidetzen dutelako, hain zuzen, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak eta emakumearen kontrako diskriminazio-era guztien kontrako Konbentzioan jasotzen diren eskubideak; giza eskubideak eta berdintasuna defendatzen dituen inork ez luke horrelakorik onartu behar.

Guzti horrengatik, agiri hau sinatzen dugunok, elkartasuna adierazi nahi diegu Granadako Alboloteko kartzelako 9. moduluan dauden emakume presoei, eta jasaten ari diren isolamendua bertan behera uztea, gizon eta emakumeen berdintasunaren kontrako neurri diskriminatzailerik ez hartzea eta euskal emakume presoen eskubideak errespetatzea exijitzen dugu.

Ermuko Udalari ondorengoa eskatzen diogu:

1. Alboloteko Kartzelako zuzendaritzari idatzi bat bidal diezaiola emakumeen kontrako jardute matxista diskriminatzaileak, bereziki Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujika euskal presoei ezarritako zigor matxista, salatzeko, eta jasaten ari diren isolamendua berehala amaitu dadin eskatzeko,

2. Instituzio Penitentziarioetara idatzi bat bidal dezala Alboloteko Kartzelako zuzendaritzari aipatutako isolamendu eta diskriminazio-egoera bertan behera uztea agindu diezaion.

3. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari jakinarazi diezaiela, 2017ko maiatzaz geroztik, Ainhoa eta Agurtzane presoak zigor bikoitza betetzen ari direla emakume izate hutsarengatik, eta kartzeletan emakume presoenganako tratu duin eta berdintasunezkoa berma dezatela.

**2018/01/10**

**ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA/Asamblea de Mujeres de Ermua**

ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA

**Agurtzane Delgado (ERMUA) y Ainhoa Mujika (DONOSTIA) en aislamiento por la política penitenciaria MACHISTA**

---

Los grupos firmantes queremos mostrar nuestra solidaridad con Agurtzane Delgado y Ainhoa Mujika, que cumplen condena en la prisión de Albolote (Granada), y en la que -por decisión de la dirección del centro, por tiempo "indefinido"- se encuentran desde el 18 de mayo de 2017 en régimen de aislamiento, sin que se sepa hasta cuándo se va a alargar dicha situación.

El motivo del aislamiento tiene su origen en la negativa de ambas a realizar de forma forzosa la limpieza de los baños del módulo nº 9. Aunque no hay una norma escrita, desde hace cinco años se viene imponiendo a todas las mujeres presas, y solamente a las mujeres, la obligación de realizar la limpieza de los baños, lo cual tiene un carácter totalmente discriminatorio y machista, que ha sido denunciado por ellas.

Nos sumamos a su denuncia contra la intolerable discriminación machista que se está produciendo en la cárcel de Albolote, Granada, y en tantas otras cárceles, donde, como consecuencia de la política penitenciaria machista, las mujeres son obligadas a realizar determinadas actividades y tareas "de mujeres", como costura o limpieza, teniendo prohibido el acceso a otros trabajos, por los que, además, los hombres presos reciben remuneración, como albañilería, mantenimiento, carpintería, pintura, electricidad, o economato central, y que las presas podrían desarrollar perfectamente.

Por rebelarse contra semejantes usos y prácticas, por el hecho de ser mujeres, a las presas vascas Agurtzane y Ainhoa se les está imponiendo una doble condena. Víctimas de la ideología patriarcal y machista, están siendo castigadas con medidas que suponen un agravamiento innecesario, y muy preocupante, de sus condiciones de vida dentro de la prisión.

Aunque parezcan más propias de cárceles de estados tercermundistas, éstas son las condiciones reales en las que se encuentran Agurtzane y Ainhoa desde hace 7 largos meses:

- están en celdas ubicadas bajo tierra con una única y pequeña ventana, por la que, a las mañanas, les entra un poco de luz,
- no tienen calefacción, simplemente un aparato por el que entra aire frío. La temperatura máxima que llegan a tener es de 11 grados, en una zona geográfica en la que, en invierno, el frio es muy intenso,
- de día y de noche tienen que ponerse encima toda la ropa de abrigo de que disponen, que también está limitada,
- las medidas de la celda son muy pequeñas; para entrar en calor sólo pueden dar 6 pasos, andando en diagonal,
- no tienen permiso para hacer ninguna actividad educativa o formativa de las que hacían antes, ni tampoco para relacionarse con las demás presas,
- solo pueden salir dos horas (por la mañana y por la tarde) a un patio muy pequeño, de unos 15 x 5 metros aprox.; no pueden salir a ningún otro sitio.

- no disponen de suficientes utensilios para una higiene y limpieza de su ropa, que deben lavar en el mismo cubo de la fregona,
- se les está privando de su derecho al disfrute y protección de todos los derechos humanos en todas las esferas y situaciones de la vida; una condena de privación de libertad nunca, de ninguna manera, justifica el trato discriminatorio y humillante, la revancha ni el castigo machista.

La situación de Agurtzane y Ainhoa en la prisión granadina de Albolote demuestra una falta de ética alarmante en quienes dirigen este tipo de instituciones al permitir estas graves agresiones, así como un desprecio a los derechos humanos fundamentales de las mujeres presas, recogidos entre otras, por la Oficina del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos y en la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer, que nadie, ninguna persona ni institución defensora de los derechos humanos y la igualdad, debería tolerar.

Por todo ello, los grupos firmantes mostramos nuestra solidaridad con las presas del módulo 9 de la prisión de Albolote en Granada, y exigimos que -de manera inmediata- se ponga fin a su aislamiento, que cese la aplicación de cualquier tipo de medidas discriminatorias contra la igualdad de mujeres y hombres, y que se respeten los derechos de las presas vascas.

Solicitamos al Ayuntamiento de Ermua:

4. que remita un escrito a la dirección del Centro Penitenciario de Albolote, denunciando el uso y prácticas machistas discriminatorias hacia las mujeres, y en especial, el castigo machista impuesto a las presas vascas Agurtzane Delgado y Ainhoa Mujika, solicitando al mismo tiempo, la finalización inmediata de su aislamiento,

5. que remita, igualmente, un escrito a Instituciones Penitenciarias, instándoles a ordenar a la dirección del C.P. de Albolote que ponga fin a la mencionada situación de aislamiento y discriminación,

6. que ponga en conocimiento del Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, así como del Instituto Vasco de la Mujer-Emakunde, la doble condena a la que se está sometiendo a las reclusas Ainhoa y Agurtzane por el mero hecho de ser mujeres desde mayo de 2017, para que exijan y aseguren el trato digno e igualitario de las presas en las cárceles.

**2018/01/10**

**ERMUKO EMAKUMEEN ASANBLADA/Asamblea de Mujeres de Ermua**